

PR ACTICUM MODULUA

KANPOKO PRAKTIKAK (12 ECTS)



Derrigorrezko bigarren hez kuntzako, batxilergoko, lanbide heziketak o eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra.

PRAKTIKEN IRAKASKUNTZA GIDA

(2019/2020)

MASTERREKO BATZORDE AKADEMIKOA

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

AURKIBIDEA

Sarrera	3
Irakaskuntza praktikak: ezaugarriak eta konpetentziak	3
Praktiken garapena: faseak eta datu bilketa	5
Praktiketako irakasleak eta haien eginkizunak	8
Praktiketan dauden ikasleen jarduerak	10
Ebaluazioa eta kalifikazioa	11
Praktiketako Txostena egiteko gida	12
Irakasleentzako ebaluazio tresnak	16
Begiralearen ebaluazioa (irakaskuntza tutoretza ikastetxean). A eranskina	
UTA ebaluazioa (Unibertsitateko Tutoretza Akademikoa) B eranskina	

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

Sarrera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen “Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza” Unibertsitate Master Ofizialaren (aurrerantzean, BBLH) helburua da masterraren izenburuan adierazitako maila eta etapetan irakaslan egiteko gaitasunak ematea; horrela, bada, ikasketa planean jasota dago Practicumeko atala, ikasgelan egin beharreko praktikak biltzen dituen, eta guztira 12 ECTS dituen.

Praktika horiek aukera egokia dira irakaskuntza esperientziari buruzko hausnarketa egiteko, oinarri hartuta BBLH masterreko gainontzeko gaietan eta moduluetan lortutako ezagutzak, eta helburua da praktiken bidez ikasleek *abenduaren 27ko ECI/3858/2007 Ministroen Aginduan* zehaztutako konpetentzia guztiak eskuratzea; izan ere, Agindua derrigorrezko Practicum fase bat ezartzen du, hezkuntza arloko erakundeekin lankidetzan burutuko dena, unibertsitateen eta hezkuntza administrazioen arteko hitzarmenen bidez.

Parte hartuko duten ikastetxeek 33/2018 DEKRETUA, martxoaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari buruzkoan agidutakoari jarraitu beharko diote.

Irakaskuntza praktikak: ezaugarriak eta konpetentziak

UPV/EHUren BBLH masterraren ikasketa planeko praktikek 12 ECTS kreditu dituzte (300 ordu). Praktiketako ikastetxean egiten den prestakuntza aldi osoa 8 astekoa da (190 ordu gutxi gorabehera).

Gainerako orduak lan autonomoan erabiliko dira (datu bilketa, praktiken egunkaria, PRAKTIKETAKO TXOSTENA egitea, ebaluazio inprimakiak betetzea, etab.), eta Unibertsitatean UTA irakasleekin eginiko tutoretza akademikoko saioetan.

Irakasgaiak ikastetxeetan eta ikasgelan izaten diren benetako arazoen berri izateko balio behar du, batez ere gai bateko edo zenbaitzuetako irakaskuntza-

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

ikaskuntza prozesuetan, betiere, kontuan hartuta teoria ezinbestekoa dela arazoak antzeman eta aztertzeke.

Praktikak antolatzean kontuan izan behar da praktikak egin bitartean bateragarri izan behar dela teoria lantzea eta praktikak egitea, eta praktika horietan ikasleek profesionalen laguntza izan behar dutela, bai Unibertsitatean, bai ikastetxean. Bi erakundeek arteko lankidetzak lagungarri izan behar da ikasleak irakasle lanean egiteko beharrezko izango dituen konpetentzia profesionalak eta pertsonalak lortzeko, eta, beraz, besteak beste, ikaslea prestakuntza didaktikoan, tutore lanean eta ikastetxea antolatu eta gestionatzeko lanean ere trebatu beharko da.

Prozesu horretan, ikasleak bi tutoreren laguntza izango du eta horiek gida lana eta orientazio lana egingo dute: bata, Unibertsitateko tutore akademikoa izango da (UTA), masterreko prestakuntza programaren jarraipena egingo diona; bestea, bigarren hezkuntzako ikastetxeko praktiketako begiralea. Horren bidez, masterreko ikasleak aukera izango du irakasleen lanean eta orientabide psikopedagogikoan hasteko, eta, horretaz gain, aukera izango du ikastetxeko arlo pedagogikoa, antolakuntzakoa eta funtzionamenduari dagokiona ezagutzeko, ezaugarri eta baldintza egokiak betetzen dituzten eta jardunean dauden irakasleen gidaritzapean.

Honako hauek dira ikasle bakoitzak praktiketan eskuratu behar dituen oinarritzko konpetentziak:

- 1) Irakasleen ezaugarriak, beren gizarte testuinguruak eta motibazioak ezagutzea.
- 2) Jarduera eremu desberdinetarako hobekuntza proposamenetan parte hartzea, praktikan oinarritutako gogoeta abiapuntu hartuta.
- 3) Esperientzia hartzea espezialitateko gaiak antolatu, irakatsi eta ebaluatzeko lanean.
- 4) Irakasle lanerako beharrezko den ahozko adierazpen eta adierazpen idatzi egokia erabiltzea.
- 5) Ikaskuntza prozesua eta elkarbizitza erraztuko duen giroa sustatzeko beharrezkoak diren trebezia eta abilezia sozialak ezartzea.
- 6) Irakasle lanaren balioa nabarmentzea, eta bizitza osoko prestakuntza eta garapen profesionala sustatzea.

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

Praktiken garapena: faseak eta datu bilketa

Irakaskuntza praktikak egiteko, kontuan hartuko da ikastetxeetako ikasturte egutegia.

Ikasle bakoitza egokitu zaion ikastetxean arituko da, praktiken iraupen osoari dagokion eskola ordutegian.

Ikasleak PRAKTIKEN EGUNKARIA egingo du, eta bertan jasoko ditu ikastetxean egunero egiten dituen jarduerak eta bere ustez garrantzitsuak, interesgarriak edo esanguratsuak izan daitezkeen egoerak, horrela gogoeta sakonagoa eta oinarritua egin ahal izateko.

Egunkaria ez da erregistro hutsa izango, irakaskuntzako praktika aldiari buruzko hausnarketa pertsonala egiteko tresna baizik. Bertan praktika aldiaren balorazio pertsonala eta profesionala egin behar da. Eta, gero, Praktiketako Txostenaren atal ezberdinak lantzeko balioko du.

Praktiken egunkari honen edo informazio bilketaren erregistro sistematiko honen edukia ez da ebaluatuko, baina beharrezkoa da egitea; izan ere, ikasleak eskuz idatzitako koadernoan edo ordenagailuan idatziz jaso beharreko gogoetaren oinarri izan behar da, eta gogoeta hori UTARi erakutsi beharko dio hark, praktika aldian, hala eskatzen dion bakoitzean.

Praktikek bi fase dituzte:

Lehenengo fasea.

Fase hau *hastapenekoa* eta *behaketarakoa* da; ikasleak ikastetxeko gizarte testuingurura eta antolaketara hurbiltzeko aukera izango du, bai eta bertako kultura profesionalera ere; horrez gain, irakasle taldeen eta sailen eguneroko lana eta gelako funtzionamendua ezagutu ahal izango ditu.

Lehenengo fase honetan ikastetxearen eta ikasgelaren atal deskriptiboak landu behar dira, beharrezkoa izanik horien arteko lotura, hartara ikastetxearen ezaugarriek testuinguru desberdinen (ikasgelan, sailetan...) dinamikan eta antolamenduan duten eragina aztertu eta horien inguruko hausnarketa egiteko. Horiek guztiak Praktiketako Txostenean bilduko dira, praktiken hastapen fase honen balorazioarekin batera, honako gidoi honi jarraituta:

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

A) Ikastetxearen eta irakaslanerako testuinguruaren deskribapena:

- Ikastetxearen titulartasuna (publikoa, itundua edo pribatua).
- Ezaugarri soziokulturalak: non dagoen, biztanleria mota, deskribapen soziologikoa, hizkuntza egoera, kultura pedagogikoa, berrikuntza proiektuak, ikastetxean praktiketan parte hartzen dutenak...
- Azpiegiturak–Ekipamendua: instalazioak eta gune fisikoak.
- Ikastetxearen antolamendua: arautegia, organigrama, kide anitzeko organoak, kide bakarreko organoak, ikastetxearen dinamika, ikastetxearen hezkuntza proiektua, ikastetxeak eskaintzen dituen zerbitzuak (jantokia, garraioa, programa bereziak...).
- Ikastetxeko sailak: orientazio saila eta sail didaktikoak, bereziki, espezialitateari dagokion saila.
- Proiektuak: ikastetxeak garatu dituen eta martxan dituen berrikuntza proiektuak, batez ere espezialitatearekin loturadutenak; ikastetxearen hizkuntza proiektua; euskararen erabilaren normalizaziora eta eleaniztasunera bideratutako planak eta ekimenak. IKTak integratzeko planak eta ekimenak.
- Helburuek espezifikatzen dituzten esku-hartze planak: Kulturartekotasuna; aniztasun afektibo-sexualaren arreta; elkarbizitza planak; Tutoretzako Ekintza Planak; Orientazio Akademikoa eta Profesionala; lan mundura hurbiltzeko orientazio planak...
- Irakasleen prestakuntza eta garapen profesionala.
- ikastetxearen integrazioa inguru soziokulturalean: inguru hurbilean egiten diren jardueren sustapena eta parte hartzea, gizarte konpromisoa...

B) Ikasgelako dinamikaren deskribapena:

- Metodologia berritzaileak: IKTen erabilera, konpetentzien arabeko lana, proiektuen arabeko lana, balioen arabeko lana,...
- Ikasleen ebaluazioa: modalitateak, egutegia, tresnak, ebaluaziorako irizpideak eta kalifikazioa, errehabilitazio eta sustapen formulak,...
- Aniztasunaren arreta, hezkuntzaketza estrategiak, hezkuntzako premia berezien arreta, politika inklusiboa,...
- Irakasleak eta laguntzaileak
- Ordu-tegi curricularra (ordutegiak, liburutegia, laborategiak, jolas orduak,...) guneen banaketa (ikasgelaren deskribapena, altzariak...).
- Behatutako egoeren eta jarreraren deskribapena eta analisisa.
- Praktika aldiaren kronograma eta ordutegia

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

Bigarren fasea. Esku-hartze fasea da; masterreko espezialitatearekin lotura estuago dauka eta ikaslearen prestakuntza aberasteko fase bat da, bai ikastetxean bertan lortzen duen ezagutzarekin, bai masterreko gainontzeko gai eta moduluetan lortzen dituen ezagutza teoriko eta praktikoeekin. Fase honetan garrantzitsua da irakasle lana eta hezkuntza arloko ikerketa lotzea, ikaslea irakasle bihurtzeko prozesua errazteko eta, horrekin batera, praktiketako ikastetxeak eta Unibertsitateak elkar aberasteko.

Ikastetxeko eta ikasgelako jarduerak aztertzeaz eta horietan parte hartzeaz gainera, ikasleak parte hartze aktiboa izango du eta espezialitateko gaiko eskola bat emango du gutxienez praktiketako begiralearekin eta UPV/EHUko tutorearekin (UTA) ados jarrita. Esku-hartze hori eta dagokion programazio didaktikoko unitatea *Praktiketako Txostenean* jasoko dira.

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

Praktiketako irakasleak eta haien eginkizunak

Bi tutore mota daude masterreko praktiketako irakasgairako:

A. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako begiralea: Bigarren Hezkuntzako praktiketako ikastetxean espezialitateko eskolak ematen dituzten irakasleak izango dira eta 33/2018 Dekretuaren 5. artikulua araberaz zebitzu hau egiteko onartuta daude praktiketako prestakuntzako irakasle tutore izateko egiaztagiria jasoz. Begiralea pertsona bera izango da Practicumaren bi faseetan eta tutore deituko zaio.

Begiraleak ikastetxean, sailean eta ikasgelan integratzen lagunduko dio ikasleari, eta tutoretzetan, klustroan, eskolaz kanpoko irteeretan... parte hartzera bultzatuko du. Orientazioa emango dio ikasle bakoitzari ikasgelako lanean, eta aholku emango dio, batez ere, esku-hartze fasean praktikan jarriko duen Unitate Didaktikoaren garapenean.

Begirale honen eginkizunak hauek dira:

- Ikastetxeko praktiken koordinatzailearekin eta unibertsitatean praktiken ardura duenarekin elkarlanean aritzea, bi erakunde horien artean egin behar den lana koordinatzeko, eta praktiketako ikasleei behar bezalako harrera egingo zaiela ziurtatzea, ikasturtean zehar ezartzen diren aldietan.
- Practicumean egin beharreko zereginen inguruan ikasleen autonomia eta erantzukizun-sena bultzatzea.
- Hezkuntzaren arloko kultura profesionala sustatzea, hezkuntza berriztatzea eta irakasle-funtzioaren balio gisa erantzukizun eta konpromisoa defendatuko dituen.
- Tutoretzapean duen praktiketako irakasleak egin behar dituen jardura hezigarri orokorrak ikuskatzea.
- Ikasleek egin beharreko praktiketako plan orokorraren barruan berariazko jardura hezigarriak proposatzea.
- Ikasgela-praktikak egiten diren bitartean ikasleari laguntzea eta harekin egotea, kasu bakoitzean erabakiz irakasleak bere zeregina egiteko zer autonomia-maila behar duen.
- Praktiken prestakuntza-prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunaren ahulgune eta indarguneak jakinaraziz, betiere jardun hori hobetze aldera.
- Praktiketako ikaslearen esku jartzea agintzen zaizkion jardura hezigarriak prestatzeko ikastetxeak dituen baliabideak, bereziki arloko programazioak edo didaktika saileko materiala.
- azken txostena egitea praktiketako ikasleek lortutako konpetentziak ebaluatzeko, tituluaren memoria egiaztatuak onartutako ebaluazio-ereduaren arabera.

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

B) Unibertsitateko Tutore Akademikoa (UTA): masterreko gai teorikoetan irakasteko baimenduta dauden irakasleak izango dira.

Praktiketako plazak esleitu eta ikasleak izango duen tutoreari buruzko informazioa bildu ondoren, ondorengoak izango dira UTA bakoitzaren eginkizunak:

1. -. Begiralearekin harremanetan jartzea praktika aldia hasi aurretik.
2. -. Begiralearekiko koordinazioa ezartzea, praktikak egiten ari den ikasle bakoitzaren tutoretza eta lanbide eta lan orientaziorako.
3. -. Ontzat ematea ikaslearen prestakuntza proiektua (I. ERANSKINA).
4. -. Gutxienez hiru bilera egitea tutorizatu behar duen ikaslearekin edo ikasle taldearekin, ikastetxean eta parte hartzen duen dinamiketan egin behar dituen jardueretan laguntzeko:

Informazio bilera bat praktikak hasi aurretik; beste bilera bat praktika aldian, eta azken bilera praktikak amaitzean.

Bilerak banaka edo taldean egin ditzake, tutoretzapean daukan ikasle kopuruaren arabera.

5. -Praktiketako Txostena orientatzea, zuzentzea eta ebaluatzea, eta ebaluazio fitxa betetzea.
6. Ikasle bakoitzaren praktiken garapena eta emaitzak ebaluatzea, begiralearekin batera eta ikastetxearekin koordinatuta.
7. -.Irakasgaia kalifikatzea (ebaluazio orritik ateratako zenbakizko balioa) GAUR aplikazioan.

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

Praktiketan dauden ikasleen jarduerak

- Masterraren web orrian eskura daitezkeen praktiketako inprimakiak betetzea eta GAUR aplikazioa erabiltzea.
- Bilera egitea UTArekin, hark zehazten duenean.
- Lankidetzako ikastetxera joatea. Ikastetxean izendatutako begiralearekin elkartzea.
- Webgunean eskuragarri dagoen prestakuntza proiektua betetzea, begiralearekin batera, eta UTari ematea, oniritzia eman diezaion.
- Begiralearekin adostutako jarduerak egitea, eta Unibertsitateko tutorearekin adostutako agiriak biltzea (egunkariak, gogoetak...).
- Ikastetxean planifikatutako jarduerak egitea, begiralearen eta UTaren zuzendaritzapean eta aholkularitzapean.
- Praktiketako Txostena egitea, eta txosten horri 5. Eranskina atxikitzea, beteta.

BBLH masterraren egutegi akademikoan ezarritako daten arabera, ikasle bakoitzak bere Praktiketako Txostenaren bi ale eman beharko ditu. Honela:

- ale bat begiraleari;
- ale bat UTari, honek ebalua dezan;

Amaitzeko, 6. Eranskina bete beharko du, eta tutoreak sinatuko du, praktikak egin izanaren ziurtagiri gisa. Ziurtagiri hori ikasle bakoitzak gorde beharko du, BBLH masterreko praktikak egin izanaren ziurtagiri gisa aurkezteko eskatzen zaion tokian.

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

Ebaluazioa eta kalifikazioa

Ebaluazioa jarraitua izango da, eta kontuan hartuko ditu praktikaren garapen prozesuan aurreikusitako elementu guztiak. Honako hauek barne hartuko ditu:

- Praktika aldia ikastetxean bete izana. Oinarrizko baldintza.
- Praktiketako Txostena entregatu izana. Lan idatzi honetan zehatz jasoko ditu ikastetxean praktiketako bi faseetan egindako jarduerak, bai eta horiei buruzko analisia ere. Txostenean jaso beharrekoen zerrenda zehaztua eta gidoia gida honetan daude jasota.

Txostena masterraren egutegian ezarritako datan entregatuko da (bi aleak, bakoitza dagokionari), eta adierazitako formatua eta atalak errespetatuz egin beharko da. Oinarrizko baldintza.

- Ikastetxeko begiraleak egindako prestakuntza ebaluazioa; azken notaren %50 izango da, eta ikastetxeko tutoretza profesionalerako ebaluazio tresnaren bidez egingo da. Gida honen amaieran atxikitako A eranskineko ereduari jarraituz. Horrez gainera, masterraren webgunean eskura daitezkeen inprimakiak bete beharko ditu begiraleak, ikastetxeko praktikak amaitzean.
- UTak egindako prestakuntza ebaluazioa. Nagusiki ikaslearekin egindako jarraipena eta Praktiketako Txosten idatziaren ebaluazioa hartuko dira kontuan, eta amaierako notaren %50 izango da.

Praktiken irakasgaia gainditzeko, ebaluazioaren bi zatiak gainditu behar dira.

Ondorengo bi egoeretako bat gertatuz gero, ez da gaindituko irakasgaia:

- Praktika aldia zuzen egin arren, txostena okerra edo eskasa izatea.
- Praktiketako ikastetxearen txostena, Unibertsitateko tutoreak berretsiko duena, negatiboa izatea eta bertan adieraztea praktiken garapenean arazo nabarmenak izan direla.

Kalifikazioa zenbaki bidez adieraziko da, 0tik 10era hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

0-4.9: Gutxiegi (G).

5,0 – 6,9: Nahikoa (N)

7,0 - 8,9: Oso ongi (OO)

9.0-10: Bikain (B)

Praktiketako Txostena egiteko gida

AZALA: masterraren izena eta egindako espezialitatea jarri beharko dira. Ikaslearen eta praktiketako irakasle tutoreen (begiralea eta UTA) identifikazio datuak eta ikasturte akademikoa ere jarriko dira.

EGITURA ETA ATALAK

AURKIBIDEA: Aurkibidea egin behar da, eta Txostena hortik aurrera zenbakitu.

1. IKASTETXEAREN, SAILAREN ETA IKASGELAREN DESKRIBAPENA

Honako alderdi hauek jaso beharko dira: ikastetxearen titulartasuna (publikoa, itunpekoa), non dagoen, herri mota, deskribapen soziologikoa, ikastetxearen organigrama, kide anitzeko organoak, kide bakarreko organoak, instalazioak eta gune fisikoak... eta ikasleari egokia iruditzen zaion bestelako informazio adierazgarria (bereziki praktiketako lehenengo aldiari buruzkoa).

- Gomendatutako luzera: 4 orrialde.

2. PRACTICUMA EGITEA

Atal honen osagai nagusia izango da ikasleak ezarritako programazio didaktikoko unitate edo jardueraren edo tutoretzako jarduera planaren –hala bada, originala– diseinua, garapena eta emaitzen ebaluazioa aurkeztea. Bertan jasoko dira, halaber, ikastetxean, ikasgelatik kanpora, bizi izandako praktikaren analisia eta praktika aldiaren eta masterraren balorazio orokorra.

2.1. Unitate Didaktikoaren orientazio programazioa.

Ikasle bakoitzak programazio didaktikoko unitate bat landuko du, originala edo egokitua, eta ikasgelan ezarriko du ikastetxeko begiraleak gainbegiratuta eta zuzenduta, eta Unibertsitateko tutore akademikoaren laguntzaz. Unitate horrek ikuspegi pertsonaletik, akademiko/curricularretik eta sozialetik daukan garrantzia adieraziko da.

Programazio didaktikoko unitatean jasoko dira, alde batetik, ikastetxeari buruzko datu orokorrak, titulua, maila, ikasturtea, gaia, iraupena...; eta, bestetik, hezkuntza proiektuaren helburu zehatzak, aipatuta zein irakasgaitan egin diren praktikak eta ikasgelan egin diren jarduerak. Bigarren atal horri dagokionez, egokia da ondoko azpiatalak jasotzea:

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

a) Ikasleek aldeaz aurretik gaiari buruz dituzten ideiak. Hautematea eta horien ezaugarriak zehaztea (ikasleek eraikitako kontzeptuak, zientziarekin bat ez datozenak, ikasketa-irakaskuntza prozesuan berriro landu beharko direnak. Horiek hautemateko tresnak sartuko dira).

b) Hasierako motibazioa pizteko estrategia ("gatazka kognitiboa" sortzeko, adibidez, hasierako ariketa edo galderen bidez...).

c) Edukiak: kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak (horien garrantzia arrazoitzeko irizpideak zehaztu behar dira).

d) Jarduerak (ikasleei emango zaizkien moduan idatzita jasoko dira, eta haien egokitasuna justifikatuko da).

e) Material eta baliabide didaktikoak (zerrendatu erabiliko direnak, bakoitzaren ekarpen didaktikoa labur azalduta. Ezin izango da erabili testu liburua baliabide bakartzat).

f) Ikasleen eta prozesuaren ebaluazioa: irizpideak eta tresnak (sartu ebaluatzeko material zehatza).

g) Beste elementu didaktiko batzuk (baliabide bibliografikoak, ikus-entzunezkoak, informatikoak... Unitate Didaktikoa egiteko erabilitako guztiak, nahiz eta ikasleekin jarduerak egiteko erabili ez).

- Gomendatutako luzera: 5 orrialde

2.2. Programazio Didaktikoko Unitatearen garapena. Unitatea garatzeko proposatzen den gidoiak azpiatal hauek ditu:

a) Jardueren sekuentzia. Deskribatu zehaztasunez ikasgelan/sailean egindako jarduerak, masterreko ikasleak eta eskolako ikasleek ikasgelan zer-nolako lana egin duten azalduta.

b) Ebaluazioaren emaitzak aztertzea. Aztertu eta analizatu ikasgelan egindako ebaluazio prozesuen emaitza zehatzak, erabilitako tresna guztiak aipatuta eta lortutako emaitzen azterketa kritikoa eginez.

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

c) Ikaskuntza/orientazio zailtasunak eta arazoak. Adierazi unitatea garatu bitartean eskolako ikasleen artean sortutako ikaskuntza/orientazio arazoak, eta azaldu horiek bideratzeko esku-hartzea eta horren emaitzak.

d) Teoria-praktika erlazioa. Teoria oinarri hartuta irakaskuntza praktikari buruzko hausnarketa egin, eta esperientzia oinarri hartuta, Unitate Didaktikoan egin beharreko aldaketak proposatu.

e) Eskolako ikasleek egindako materialak. Aipatu Bigarren Hezkuntzako ikasleek egindako materialak, masterreko ikasleak, irakasle gisa, egindako zuzenketekin.

- Atal honetan gomendatutako luzera: 5 orrialde.

2.3. Ikasgelatik/sailetik kanpo ikastetxean bizi izandako praktikaren analisia.

Atal honetan jasoko dira ikasleak ikastetxeko organo guztiekin izandako harremanak, ikasgela/sailaren eguneroko lanarekin lotura zuzena ez izan arren, funtsezkoak direnak ikastetxearen funtzionamendurako. Besteak beste, honelako alderdiak jasoko dira: kide anitzeko organoekin, orientazio sailekin, didaktikakoekin eta eskolaz kanpoko jardueren sailekin izandako harremanak.

- Gomendatutako luzera: 2 orrialde.

3. PRAKTIKEN BALORAZIO OROKORRA

Atal honetan honako alderdi hauek jasoko dira: praktika aldian ikasitakoak, teorian eta praktikan izandako zailtasunak, praktiketako ikastetxean izandako harrera, BEGIRALEAREKIN eta Unibertsitateko tutorearekin izandako harreman profesionala, eta arlo profesionalerako eta hezkuntzako profesional gisa praktika hauek duten balioari buruzko iritzia.

1. Gomendatutako luzera: 3 orrialde.

LANA IDAZTEKO ETA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK

Txostena ordenagailuz idatzita aurkeztuko da, euskaraz edo gaztelaniaz, ikasleak nahi bezala eta praktiketako tutore izango den irakaslearekin adostuta.

Orriak zenbakitu egin behar dira (azala eta aurkibidea ez dira zenbakitu behar).

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

Letra tipoa eta tamaina: Verdana, 10 puntu. Lerroartea: 1,5; lerro zuririk utzi gabe paragrafoen artean. Lerro zuria utziko da izenburu baten eta lehenengo paragrafoaren artean, eta aipamen luzea egiteko erabili den aparteko paragrafoaren hasiera eta amaieran. Testu osoak lerrokadura justifikatua izan behar du (oin-oharrek ere bai). Marjinak: 3 cm goiko eta ezkerreko marjinetan; 2,5 cm beheko eta eskuineko marjinetan. Testu prozesatzaileek berez dakartena ere erabili ahal izango da: 2'54 cm. lau marjinetan. Koska erabiliko da (0'5 eta 1'25 cm artean.) paragrafo berri baten hasieran eta aipamen luzeetan.

Letra etzana erabiliko da liburuen eta beste agiri batzuen izenburuak nabarmentzeko, bai eta beste hizkuntza batzuetako hitzak idazteko ere. Azpimarra erabiliko da atalen izenburuak eta idazpuruak nabarmentzeko. Letra lodia izenburuetan erabiliko da. Izenburuak zenbakitu egingo dira hierarkikoki, haien edukia hobeto ulertzeko. Letra lodiz idatziko dira, eta ezkerretara lerrokatuta egongo dira.

Gutxieneko luzera: 15 orrialde (32.000-35.000 karaktere espaziorik gabe)

Gehienez: 25 orrialde (53.000-57.000 karaktere espaziorik gabe)

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra. Máster universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

Irakasleentzako ebaluazio tresnak

A ERANSKINA. Begiralearen ebaluazioa

B ERANSKINA. UT Aren ebaluazioa (UPV-EHU/BBLH)

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra.
 Master universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

A ERANSKINA/ ANEXO A

IKASTETXEKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA/ EVALUACIÓN DEL INSTRUCTOR O INSTRUCTORA DEL CENTRO

Praktika Zentroa/Centro de prácticas:

Instruktoarearen izena/Nombre del Instructor o Instructora:

Ikaslearen izena eta abizenak/Nombre y apellidos del alumno o alumna:

Espezialitatea/Especialidad:

EBALUAZIORAKO TRESNA/ IRIZPIDEAK

Asetasun -/ egokitzapen-/onarpen- maila
 BAXUA.....ALTUA

INSTRUMENTO/CRITERIOS DE EVALUACIÓN

Grado de satisfacción/acuerdo/adecuación.
 BAJO ALTO

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Ikasleak parte hartu duen ondorengo arloen balorazioa **sail eta zentro** mailan:

Valoración a nivel de **centro y departamento** en los siguientes
 ámbitos en el que el alumno o alumna ha participado :

		0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	Asistentzia eta Puntualtasuna Asistencia y puntualidad											
2	Arauekiko errespetua eta zentroekiko ohiturak Respeto a las normas y costumbres del centro											
3	Dokumentazioaren ezagutza eta zentroko proiektuak (IHP; IPK; IUP; ...) Conocimiento de la documentación y proyectos del centro (PEC; PCC; PAC; PAT; ...)											
4	Zentroko berrikuntzen proposamenen ezagutza Conocimiento de las propuestas de innovación del centro											
5	Saileko berrikuntzen proposamenen ezagutza Conocimiento de las propuestas de innovación del departamento											
6	Partaidetza, modu bolondresean, izendatu gabeko eginkizunetan Participación de manera voluntaria en tareas no asignadas											
7	Beste irakasleekiko harremana (errespetua, kolaborazioa eta iradokizunen onarpena) Relación adecuada con el resto del profesorado (respeto,											

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra.
 Master universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

	colaboración y aceptación de sugerencias)														
8	Zentroko ikasleekiko harreman egokia Relación adecuada con el alumnado del centro														
9	Hpb ikasleenganako hurbilpena Acercamiento al alumnado con nee														
subTOTAL (1-9)															

Ikasleak parte hartu duen ondorengo arloen balorazioa gela mailan: Valoración a nivel de aula en los siguientes ámbitos en el que el alumno o alumna ha participado:		0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10										
10	Ikasgaiaren ezagutza nahikoak Conocimientos suficientes de la asignatura											
11	Aho eta idatzizko adierazpen egokia Expresión oral y escrita adecuada											
12	Ikasgelako baliabideen kudeaketa (arbela, testu liburua, power pointa, interneta ...) Manejo de los recursos del aula (pizarra, libro de texto, power point, internet ...)											
13	Iniziatiba proposatutako jarduera desberdinetan Iniciativa en las distintas tareas propuestas											
14	Harreman egokia gelako ikasleekin Relación adecuada con el alumnado del aula											
15	Lanean sortutako gatazken gainditzea Superación de problemas surgidos en el trabajo											
16	Bere eginkizunean jasotako informazioekiko konfidentzialtasuna Confidencialidad sobre informaciones recibidas en el ejercicio de su tarea											
subTOTAL (10-16)												

AZKEN NOTA/CALIFICACIÓN FINAL
 TOTAL-PARTZIALETAKO BATUKETA ZATI 16 (ITEM)
 SUMA DE TOTALES PARCIALES DIVIDIDO ENTRE 16 (ITEM)

Data/Fecha

Sinadura/Firma

Máster **MFPS/BBLH**

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra.
Master universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

AZALPENAK ETA OHARRAK / NOTAS Y EXPLICACIONES

Behar duzun espazioa gehitu / Añade el espacio que necesite

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra.
 Master universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

B ERANSKINA/ ANEXO B

TUTORE AKADEMIKOAREN EBALUAZIOA(TAU) EVALUACIÓN DEL TUTOR O TUTORA ACADÉMICA (TAU)

Praktika Zentroa / Centro de prácticas:

Tutorea / Tutor o Tutora:

Ikaslea / Estudiante:

Especialitatea / Especialidad:

EBALUAZIORAKO TRESNA/
IRIZPIDEAK

INSTRUMENTO/CRITERIOS
DE EVALUACIÓN

Asetasun -/ egokitzapen-/onarpen- maila

BAXUA.....ALTUA

Grado de
satisfacción/acuerdo/adecuación.

BAJOALTO

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

ARLOA / CONCEPTO

TUTORETZA BILERAK SESIONES DE TUTORIAS		0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	Bileretara bertaratzea Asistencia a reuniones											
2	Interesa eta ardura bere lanarengatik Interés y dedicación por su trabajo											
3	Irakokizunen irekitasuna Receptividad a las sugerencias											
4	Prestakuntza prozesuaren asimilazio-maila Grado de asimilación del proceso formativo											
subTOTAL (1-4)												

ARLOA / CONCEPTO

PRAKTIKETAKO MEMORIA MEMORIA DE PRÁCTICAS		0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
5	Aurkezpeneko arauen burutzapena Cumplimiento de las normas de presentación											
6	Argitasuna Claridad											
7	Analisi eta sintesia Análisis y síntesis											

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra.
 Master universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

8	Originaltasuna														
	Originalidad														
subTOTAL (5-8)															

ARLOA / CONCEPTO

EDUKIEN DESKRIBAPENA ETA GARAPENA DESCRIPCIÓN Y DESARROLLO DE CONTENIDOS		0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
9	Ikastetxea eta saila El centro y el departamento											
10	Irakasgaiaren inguruan hezkuntza asmoak Intenciones educativas de la asignatura											
11	Jarduera didaktikoen hezkuntza asmoak Intenciones educativas de las actividades didáctica s											
12	Programazio didaktikoaren unitatea eta jardueren sekuentziazioa La unidad de programación didáctica y Secuencia de actividades											
13	Ondorioak- Googoetak Conclusiones-Reflexiones											
14	Beste batzuk Otras											
subTOTAL (9-14)												

ARLOA / CONCEPTO

PROIEKZIO PROFESIONALA PROYECCIÓN PROFESIONAL		0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
15	Hezkuntza lanbide-jarduerarako egindako lanak duen erabilgarritasuna Utilidad del trabajo realizado para la actividad profesional educativa											
16	Hausnarketa/ebaluazioa hautapena edo lanbide-proiektuari dagokionez Reflexión/evaluación sobre la elección o proyecto profesional											
subTOTAL (15-16)												

TUTORE AKADEMIKOAREN AZKEN
NOTA/CALIFICACIÓN FINAL DE L TUTOR
ACADÉMICO. TOTAL-PARTZIALETA KO BATUKETA
ZATI 16 (ITEM) SUMA DE TOTALES PARCIALES
DIVIDIDO ENTRE 16 (ITEM)

Máster MFPS/BBLH

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra.
 Master universitario en formación del profesorado de educación secundaria obligatoria y bachillerato, formación profesional y enseñanzas de idiomas.

AZALPENAK ETA OHARRAK / NOTAS Y EXPLICACIONES

(Behar duzun espazioa gehitu / Añade el espacio quenecesites)

Kalifikazioa/ Calificación	% total	Nota
Instruktorea /Instructor o instructora	50	
Tutore Akademikoa / Tutor o tutora Académico/a	50	
AZKEN NOTA CALIFICACIÓN FINAL	100	

Data/Fecha:

Sinadura/Firma: